

Jose Joakin Gallastegi

BIZIKLETEN lehia antolatuaren zabalkundeak behar zituen aldeko baldintzak XX. mende hasierako Bilbok biltzen zituen; ezaguna genuen bizikletarien lasterketa XIX.aren bukaeratik, baina ez zuen oraindik ezinbesteko hedapen oraindik.

Errekarren inguruan sortutako gizarte industrialaren ezaugarriak bat zen antolamendu maila, ordura arte ezeguzaguna gure artean. Bestetik, Bilbo berrian gora egin nahi zuten sektoreek pedigiariaren beharrez zuden burua erakusteko eta, orduko ziklismoarako funtsezkoa zena, bazen saldu beharrekiko produktu berri bat: bizikleta. Azken batean, Bilbon bezala Irun, Donostia, Eibar edo Iruñean ez zen erein ziklismoaren hazia kasualitatez edo inoren kapritxoaz; arrazoiak beti izaten dira mundu honetakoak oso. Motorrik gabeko ibilgailu berria saltzeko premiak eragin zien gainerako mekanismoei.

Guzti honek batu egin zituen elkarte *sportibo* osatu berrietan, batetik gorantz zetozen aberats heldu berriak eta bestetik berauek ezinbestekoa zuten betiko familia boteretsuen influentzia; denak batera gizon atletiko modernoaren alde. Arrakastaren sekreturik preziatuena, orduan eta oraindik ere, komunikabideetan harrera eta sarriera izatea; orduko denboran prentsa zen zutabe nagusia. Kirol elkarte haiek unibertsio txikiak ziren, oso arautuak—kontrol soziala beti dago modan— eta kidetxe jarduerak mordoak eskaintzen zieten aisialdia deitutako harritxiki berriaren esparruan. Igoera sozialaren bereizgarriak.

Giro honetan eratu zuten *Sociedad Ciclista Bilbaina*, beste elkarrekin alderatuta ezaugarri oso berezia zuena: kirol bakarraren hedapenerako sortua zen. Txirindu zaleen tertulia sutsuak bizikletak saldu eta alokatzen zituzten garajetan kokatu ziren, erreze uler daitekeen. Izan ere, garajeok suertatu ziren hasierako lasterketa ugariaren babesle.

### Urrezko hasiera

*Bilbainak* emandako sosa handiko lehen izena Lorenzo Oca izan zen, Vicente Blancoren etsai garaiakidea. Blanco *Bilbainan* ere ibili izan arren, laster jantzi zitoten beste bandokoen mailloa (*Asociación Atlética Vizcaina*) eta bereikiak palmarearen altxorrik onenak lortu *Kojuak*. Bien arteko lehia biderkatu egin zuen ziklismoaren kalentura eta, zelan ez, egunkariaren salmenta.

Gora egiten zuen etengabe bizikletaren giroak Bilbo aldean eta bertan antolatu zuten orduko lasterketa posibletarik gorenena, Espainiako txapelketa, gerora klasiako bihurtuko zen ibilbidean: Bilbao-Getxo-Plentzia-Mungia-Morga-Txorierrri-Deustu-Bilbao, mendateak Andranka, Andra Mari eta Enekeri; lasterketa gogortzeko sarri gehitzen zuten Zugaztieta-Autzagana-Zornotza-Erletxeta zatia.

Ziklismo-gizon bilbotarraren eredu bihurtu zen Oca. Bere arerio nagusi Blanco abenturazalea munduko oihanean galduten zen bitartean, Lorenzo denda zabaldutako Urtiko erdigunean lasterketetan batutako sarrien diruak lagunduta. Markarik onenak saldu eta alokatzen zituen eta, behin dortsala betiko eskegita, goi-karguak bete zituen *Ciclista Bilbainan*. Urte luzez izan zen Oca bizikletarien giltza-

## 100 urte Bilboko gurpilean (I) Harrizko karreristak

Sociedad Ciclista Bilbaina (SCB) bataiatu zuten elkarteak aurten beteko du mendea. Espainiako Ziklismo Federazioaren menpeko beste inork gaur ezin esan duena. Ehun urteren ibilbidea kontatzea, laburtuta ere, dokumentu mordo bat eta sakona da; ez da hori nire asmoa. Baditu bizikletak bere historiagileak eta berauek beteko dute lan hori, laster edo beranduago. Izan daitezela ondorengo lerroak, hala ere, Bilbok eta ziklismoak izan duten harremanen kronikatxoak, tartean SCB lehen lerroan. Eta elkarte protagonistari, eskerrak eta zorionak



Bilboko jaietako kriteriuma S.Arana kalean gora, gerra aurretik

ria Bilbon Gran Via zinetokiaren ondoko bere kontrol dorretik.

Bizikleta gaineko lehia antolatzeko grina atoa zabaldutako Bizkaia guztira eta SCBk biderkatu behar izan zuen antolatzeko ahalmena. Gero eta herri gehiago ziren jaietako programan karrera sartzen zutenak eta Bilbokoa zen oraindik egutegi gero eta potoloari erantzuteko elkarte bakarra. Bizikletaren lehen urteak izan arren, antolatzailen ahalaginak eta zalego gero eta handiagoak figura bikote berria ezagutu zuten, Cesareo Sarduy eta Segundo Barrutabeña.

Biak goitiki beherako atletak, biak muxikarrak eta mende osoa belaunaldiz belaunaldi zeharkatuko duen hari baten hasiera, non antolamenduko egitura federatiboa oso bilbotarra Bizkaiko seme ez osatutako tropelak elikatuko duen; pedalarik gehienak herri txikietakoko izango dira, Urriko girotik oso urrun zegoen nekazal girokoak. Baserritarrentzat eguneroko kontua zen sufrimenduko fisioa, zorte txararen zama aldean eraman beharra, diziplina edo eragaldiaren gordina; balore guzti hauek zaharretatik umeetaraino pasatzen zuten puntako transmisore batek: kate familiarra. Era berean, halako bi-baldintzetan bizi zenarentzat ametsa zen bizikleta baten gainean bizimodua ateratzea, bai baserrian baita ekonomia industrial berriaren oinarrian zeuden meatzari espilotatuen kasuan ere. Garai hartan puntako txirindularia izan zen Txomin Gutierrezek, Retuertoko semea, ondo baino hobeto ulertu zuten pedalen ahalaginak zenbat zama kentzen zion gainetik.

Sarduy eta Barrutabeñaren ibilbide guztiz parekoak euskal txirindularitzaren urrezko garai baten adierazgarri dira, ardatz na-



Ezquerria Galibier mendatean gora lasterketa buru, Frantziako Tourrean

### Itzuliak iraultza ekarri zuen bizikletaren mundura

gusia Bilbo izan zuen garaia hain zuzen. Abiapuntua 1924 urte zoragarrian koka dezakegu. Martxo aldean *Excelsior* kirol egunkaria ateratu zuten eta berehala auzi zion argitalpen jeltzaleak *Euskal Herriko Itzulia* antolatzeari. Eztanda izan zen hura kirolaren munduan ez ezik giro sozialaren ere. Bertoko figuratxoak munduko piripitiri jainkoen tropel berean sartuta lau egun ez. Euskal Herri osoa kamino bazerretan. *Itzulia* Bilbo hasi eta bukatu zen, Campo Volantinek azken helmuga prestatzen zentelien moduan sartu ziren txirindulariak Deustutik. Erreka pareko luzegunean zaleak milaka. Azkenean denak pozik, antolamendu ona, nazioarteko harreman eragingarriak, zalego masa handia liliatuta nahiz eta amildegia izan hementz eta izarren artean eta, bide

batez, egunkari berriak sustrai sakonak. Horixe izan zen, oso laburtuta, gure lehen Itzuliaren uzta oparora. Arrakasta biribila.

*Itzuliak* iraultza ekarri zuen bizikletaren mundura eta epe laburrean perretxikoen modura loratuko dira ziklismo elkarteak herrietan; futbol klub handienek ere elastikoa maillo bihurtuko dute eta gaur arte heldu den egutegiaren hasiera momentu hartantxe koka-tzen da. Ordiziako lasterketa, hemengo karrera dekanoa, edo Ge-txokoa adibidez orduan ezagutu zuten lehen edizioa. Bilboko *GP Vizcaya* 1925ean jaito eta 1977an utzi zuten hiltzen, itota.

### Enkartazioetako bikotea

Muxikar parearen lekukoa beste bikote batek hartuko du. Biak Enkartazioetan sortuak eta, horregatik seguruenik, aldatz goran trebe baino trebeago. Paco Cepeda eta Federico Ezquerria, plazaratu ziren ordenean.

Egoera politikoak geldiarazi zuten gure Itzuliaren palmareza 1930ean; aldi berean, sendi aber-tzalearen barruko liskarrak metamorfosi txiki bat ekarri zigan, *Ex-*

### Ziklismo-gizon bilbotarraren eredu bihurtu zen Oca

*celsiors Excelsius* bihurtuta. Baina bizikletaren lehia sustrai sakonak gurean eta ez zen horregatik gelditu gurpilearen jirabira. Cepeda zein Ezquerria garrapenak pilatzen doaz inguruko lasterketan. Baina 1935eko Tourrean Paco izan zen zoritzarreko zerrenda beltza inaurratu zuena. Lautaret mendatean behera jausi eta egun gutxira hil zelako Grenobleko ospitalean. Hurrengo urtean Fede garaile izan zen Tour de Franceko etapa batean, gure harrobikoan lehen garai-pena zen eta Ezquerria hemengo lehen mitoa. Baina gailurrera heldu berriak frankisten kolpea ezagutu zuten garaipean handiaren egun berean; gero gerra luzea eta, azken batean, handienetakoa izateko aukera galduta. Ziklismoan ere kalte handia ekarri zuen frankismoak.

Euskal egutegiak nobedade bat ezagutu zuen 1933an; oso ezaugarri bereziko lasterketa, Santo Domingoko Igoera. Nazioarteko denboraldian Mont Faron eta Mont Agel igorek markatzen zuten hasiera eta horren harira antolatu zuten Bilbokoa. Udaletxetik irteada Artxandarako aldatzen gorako hiru kilometro pasatxoak jendez bete ziren San Jose jai egunetan. Cepedak eta Ezquerriak aipatutako Frantziako igoera ospetsuetan egindako postu onen animatu zituzten antolatzailak hemen ere holako karrera labor beroa antolatzera. Arrakastaren froga, oso gutxira hasi ziren Arantzazu eta Urkiolako Igoerak. Euskal Herriko *Itzulirik* ezean, zalea tropel gosen zen. Beste lasterketa berri bat, GP Bilboa as deitutako go mailako-entzat, gerra ekarri zuten artean. Zaletasunak pil-pilatu zirauren.

Berriro *Itzulia* 1935ean eta italiar oso gazte bat garaile, Gino Bartali indartsuena Ezquerria eta enparauen gainetik Sabino Arana etorbideko helmugan. Urte berean *Vuelta a España* antolatu zuten lehenengo bider, Bilbon etapa baten bukatzen eta Gustave Deloor irabazle, Madrilereko azken podiumeko gorenko mailara igo zen bereba.

Gerrako irabazleak erreallitate gordin eta gogorra estaltzen saiatzen dira gerraostean, baina alferrik. Karrerista asko mapatik desagertu egin dira; bizirik daudenak, ordea, oso baldintza txarretan elikaduraz entranamenduz eta zuloz betetako errepedietan. Lehengo egutegiaren martxa berreskuratu nahi dute, baina ezer ez da berdin. Sariak lehenengo erdiaren erdira jaitsi dira, orduko kilometroen abiadek ziklistena baino atletismokoak ematen dute. Zulo sakonera erori gara.

Halako baldintza negargarrietan *Circuito del Norte* bataiatutako itzulia antolatu zuten, lehenengo Euskal Herrikoaren sasi-ordeko lege. *Excelsius* modukorik lege berriari baime du, eta *Hierro* arratsaldeko egunkari frankista berriak antolatu zuten lasterketa. Karreren antolamenduarren zulo bete nahian, arratsaldeari berbera antolatzen hasi zen *GP Liberación*, Francoren aldekoak Bilbon sartu ziren eguna ospatzeko, edo eduki belikoz betetako *Cinturón de Bilbao* lasterketa, beti ere gerra garailean egutegiaren apaingarri.